

“Espazio hau askoz ere feministagoa izatea nahiko nuke”

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Muitze Zulaika Gallastegi

Hizkuntzaren prozesamenduaren ikertzailea



Muitze Zulaika Gallastegi

Berango, 1999.

- **Informatika Ingeniaritzako gradua** egin zuen, eta, jarraian, **Konputazio Ingeniaritza eta Sistema Adimentsuak Unibertsitate Masterra**.
- Gaur egun, Elhuyarren **Orai Adimen Artifizialaren zentroko ikertzailea** da, eta hizkuntzaren prozesamenduaren alorrean dabil lanean.

Muitze Zulaika Gallastegik boladan dagoen arlo batean egiten du lana: adimen artifizialean. Zehazki, euskarazko zuzentzaile gramatikala garatzen dabil, Orai adimen artifizialeko zentroan (Elhuyar). Horra iristeko bidea abiatu zuenean, ordea, adimen artifiziala ez zegoen hain bogan. Are gehiago, gogoratu duenez, informatika ere ez zegoen boladan, eta erdi zoriz hasi zen horretan.

Dioenez, batxilergoa zientzia eta teknologiaren adarrean egin zuen, eta ez zeukan batere garbi nondik jo. Hala, bokazio berezirik gabe baina jakin-minez hasi zen informatika fakultatean. “Garai hartan, informatikariak irudikatzen genituen gizon friki gisa, txikitatik programatzen zekitenak... Eta, beraz, beldur nintzen karrera zer izango ote zen, gainera, ez bainekien ezer programazioaz eta abar. Baina karrerak horretarako daude, eta bertan ikasi nuen informatika zer den, eta izan zen mundu berri bat deskubritzea bezalakoa: hizkuntza berri bat ikasi nuen, programatzen ikasi nuen... Azken finean, ikasi nuen informatikari edo zientzialari batek bezala pentsatzen”.

Horrez gain, ikusi zuen fakultateko jendeak ez zuela zerikusirik eredu estereotipatuarekin, eta emakume irakasle asko ere bazeudela. Hala, pixkanaka karre-raz maitemintzen joan zen. Eta han sortu zitzaion baita hizkuntzalaritzan aritzeko aukera ere. “Karreraren azken urtean hizkuntzaren prozesamenduaren irakasgaia izan genuen. Irakasgai horretan, makinei gizakion hizkuntza ulertzen irakasten zaie, adimen artifizialaren bidez. Eta hor bat egin zuten nire interesek, beti izan baitut hizkuntzarekiko atxikimendua”.

Irakasgai horrekin “guztiz liluratuta” geratu zen, eta mundu berri baterako ateak ireki zitzaizkion. Horrekin lotuta egin zuen gradu-amaierako lana, Elhuyarren, baita master-amaierakoa ere. Zehazki, euskarazko akats gramatikalak zuzentzeko eredu bat garatzea izan zen master-amaierako lana.

Eredua euskararako egin izanak badu bere zailtasuna, baina motibazioaren aldetik ere berezia da, euskaraz eta euskararentzat egiten baitu lana. “Hizkuntzaren prozesamendua ezinbestekoa da hizkuntza gutxientzat, hau baita errealitatea, eta, gizarte eguneratu bat eta hizkuntza aktibo bat nahi baditugu, behar dugu ereduak euskara ulertzea, euskaraz sortzeko gai izatea, itzultzeko gai... Euskararen biziraupenerako behar dugu”.

Euskarak adimen artifiziala behar du, eta emakume ikertzaileak ere beharrezkoak dira. “Zergatik? Bada, nik ez dut ulertzen emakumezkorik gabeko mundu bat, ez dut ulertzen emakumezkorik gabeko zientzia bat, ez dut ulertzen begirada hori ez daukan ikerketarik. Eta iruditzen zait ezinbestekoa dela begirada eta pentsamendu horiek aplikatzea zientzian eta informatikan”.

Gutxiengoan egoteak prestigio edo garrantzia gutxiago ematea ere badakar, gainera. “Ez dira gauza isolatuak; badakigu egiturazko arazo bat dela. Eta aurre egiteko, lehenik eta behin, beharrezkoa da egoeraren jabe izatea eta ikusaraztea; eta, gero, politiken eta praktiken bidez egin behar zaie aurre, modu sistematikoan”, esan du Zulaikak. Horrenbestez, etorkizunerako desio bat dauka: “Nahiko nuke espazio hori askoz ere feministagoa izatea” ●

 Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea	Kultura Zientifikoko Katedra Cátedra Cultural Científica	UPV/EHU Kultura Zientifikoko Katedrarekin lankidetzan egindako atala.
--	---	---



[Elkarrizketa osoa webgunean](#)